



EREDUA

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



Txantxangorria oso hegazti ezaguna da Euskal Herrian. Argazkian ikusten den bezala, txikia da eta forma biribila izan ohi du, bolatxo bat bezala. Deigarriena eta ezagutzen errazena haren aurpegi eta bular laranja bizia da, bizkarreko eta hegaletako lumaje arre edo marroiarekin kontrastea egiten duena. Beheko aldea, sabela, kolore zuri grisaxkakoa da. Mooka fina eta iluna du, intsektuak harrapatzeko ezin hobe, eta begi beltz oso adierazkorrak.



Txantxangorria oso ohikoa da gure baso, parke eta lorategietan.

Intsektuak, armiarmak eta harrak jaten ditu batez ere, eta lurretik salto eginda bilatzen ditu, baina udazkenean eta neguan fruitu eta haziak ere jaten ditu. Ezaguna da txori bitxia eta fidakorra delako, sarritan gizakiengana hurbiltzen dena. Horrez gain, oso kantu melodikoa du, eta arrak oso lurraldekoiak dira, beren espazioa beste txantxangorri batzuetatik babestuz. Habiak leku ezkutuetan egiten dituzte, hala nola enbor tartetan edo landaredi trinkoaren artean.

Ezezagunak ziren hitzak:

Arre: zuraren edo lurraren antzeko kolorea da.

Informazioa eskuratzeko erabili ditugun orriak:

<https://txoriak.eus/txoriak/txantxangorria>

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/10153>